

Familia hori:

IKASTOLEN ELKARTEAK ekoiztutako materiala da eta bera izan da kompetentzietan oinarritutako lanketa proposatzen lehena. Ez hori bakarrik, EKI izan da, kompetentzien artean, kompetentzia digitala ere integratuta duen lehen ikasmateriala.

EKI proiektua bi formatutan eskaintzen da: liburua eta digitala eta ikastolan biak erabiltzen ditugu. DBH-1en erabiltzen den euskarria liburua da, baina lehen esan bezala, kompetentzia digitalaren lanketa integratuta dagoen horretan, jarduera asko digitalki egin behar izaten dira eta ondorioz, ikasle bakoitzak bere gailua behar du gelan, beharra sortzen denean erabilgarri izan dezan. DBH-2n berriz bi formatuak erabiltzen ditugu. Hiru ikasgaietan liburu formatuarekin lanean jarraitzen dugu, baina beste hiruetan guztiz digitalki lan egiten dugu eta DBH-3-4n berriz guztiz digitalean.

Proiektua behar bezala landu ahal izateko, formatu bat edo beste erabili, ikasle bakoitzak bere gailua behar du gelan. Hori horrela izanik, ikastolak gailu bat jartzen dio ikasle bakoitzari DBH-1 eta DBH-2n, baina bere gaitasuna mugatua izanik, DBH-3n familia bakoitzak bere seme/alabarentzako gailuaren kostua bere gain hartzea eskatzen dio.

Gailuaren inguruko hautua ere ez da nolana hikoia. Ikastolen elkarteak bere garaian gailua eta sistema eragile ezberdinak aztertu eta frogatu zituen ikastola ezberdinetan eta azterketa horren ondorioz, gailu jakin baten aldeko hautua egin zuen. Gailu hau chromebook-a da.

Chromebook-ak ezaugarri jakin batzuk ditu eta horien artean piztu eta itzaltzeko azkartasuna eta autonomia handia izatea dira. Bertan ezin da ezer instalatu, Interneten lan egiteko pentsatuak baitaude eta hori da hain zuzen ere EKI proiektuak egiten duen hautua. Hautu honen helburuetako bat, inongo sistema eragilerekiko loturarik ez izatea izan baita.

Erosketa ereduari dagokionez, berriz, ikasleen artean ezberdintasunik ez egotea izan da gure eta gainontzeko ikastolen helburua eta ondorioz, ikastolak aukeratu eta eskatzen ditu ikasle guztientzako gailuak eta ondoren gailua hauetako bakoitza ikasle bakoitzaren izenean erregistratzen da inbentariatuta gera dadin eta Google-k berak eskaintzen digun kudeaketa paneletik kudeatu dezagun.

Ordenagailuak eskatuta daude eta ikasturte hasieran banatuko zaizkie ikasleei. Banaketa egiten den unean, aurrez aipatutako erregistro hori egin beharko dugu. Beraz, ikastolako IKT arduraduna zuetako bakoitzarekin bilduko da, ordenagailua kaxatik atera, dena ondo dagoen ikusi, ikastolako WiFira konektatu eta erregistratzeko. Hau egin ondoren, ordenagailua etxera eramanez ahal izango duzue.

Ordainketari dagokionez, helburua familia guztientzako jasagarri izatea izan da eta ondorioz, ordainketa modu ezberdinak eskaintzen dira:

- Aldi bakarrean ordaintzea.
- Ikasturte baten zehar, 10 ordainketetan ordaintzea.
- Bi ikasturtetan zehar 20 ordainketetan ordaintzea.

Zatika ordaintzeak, **EZ DU INOLAKO KOSTU GEHIGARRIRIK**, hau da, kantitate berdina kostatuko da aldi bakarrean ordainduta edo 20 alditan ordainduta. Finantzazio horren kostua, ikastolak hartzen du bere gain.

Ordenagailu hau erabiliko dute zuen seme/alabek DBH-3tik Batxilergoko 2. maila arte. Lau urteko biziraupena izango duela aurreikusten dugu eta horretan oinarrituta eta ordenagailua joan etorrian ibiliko dela kontutan izanda, ordenagailuarekin batera, 4 urte arteko berme hedapena kontratatzen dugu. Azkenik, Google lizentzia bat ere ordaindu behar da lehen aipatu moduan, ordenagailua erregistratu eta kudeatu ahal izateko. Hauek dira atal bakoitzari dagozkion diru kopuruak:

Acer Chromebook CB514 14"	229 €
Google For Education lizentzia, kotsolaren kudeaketarako	23 €
Kanon digitala	5,45 €
4 urteko luzapena hausturak eta kolpeekin - Advantage	50 €
BEZa (%21)	63,42 €
GUZTIRA	365,42 €

Hurrengo lau urteetan zehar, ordenagailuari zerbait gertatuz gero, matxura, arazo horren kudeaketa ikastolak bere gain hartuko du, hau da: zuen seme/alabak ikastolako IKT arduradunari zer gertatzen zaion esango dio eta ikastolako IKT arduraduna izango da, zerbitzu teknikoarekin harremanetan jarri, garantiak exekutatuarazi eta intzidentzia horrek eskatzen dituen gainontzeko kudeaketak egiteaz. Bitartean, ikastolak beste ordenagailu bat utziko dio zuen seme/alabari bere jardun normalarekin jarrai dezan. Ordenagailua konponduta jaso bezain pronto, ikasleari jakinaraziko zaio eta itzuliko zaio, honek ikastolak utzitakoa bueltatzearekin batera.

Abuztuaren amaieran beste mezu bat bidaliko dizuegu ordenagailu banaketa noiz eta nola egingo den jakinarazteko.

Dokumentu honekin batera, ordenagailuaren ezaugarri teknikoak eta kontratatutako bermearen ezaugarriak bidaltzen dizkizuegu.

Besterik gabe, jaso gure agurra

Arkaitz Apeztegia
(DBHko koordinatzailea)